

LUPAREKID
Elixabete Garmendia

KAZETARIA

Atzerapauso hura

Opor hasieran irakurtzeari hartzen zaion gustuarekin, bi liburu darabilzkit eskuartean, buruz buru: Miguel Sánchez-Ostizen *Tiempos de tormenta* (Pío Baroja, 1936-1940) eta *Memorias de un piojo republicano*, Ernesto Carratalárena, biak ere Pamielak argitaratu berri.

Ernesto Carratalá *Ezkaba* dokumentalean ezagutu nuen, Iñaki Alforjak San Kristobal gotorlekuko ihesaldiari buruz egindakoan. Ezberdina gertatzen zen oso gainerako lekukoengandik. Besteak Gaztela, Galizia nahiz Euskal Herriko gizon xumeak ziren, adinaren zama gainean somatzen zitzaizkienak. Bera berriz, *dandy* bat, krema koloreko siloi batean eserita, jantzi argiak soinean. Bizar eta melena marxiano zuriek bakarrik ematen zioten nolabaiteko *gorri* itxura. Diskurtso elaboratua eta dotorea, kultura eta modernoak, gaztea. Hainbestera, zalantzan jartzen zen bat ea nola egon ahal izan ote zen gizon hura San Kristobalgo ihesean, 1938an.

Orain, bere memorietan, aurkitu dut esplikazioa. Gerra hasi zen uda hartan hemezortzi urte betetzeko zeuzkan, eta perspektiba hauxe zuen irailerako: zientzia fisiko-kimikoak ikasten hasi, fakultateko tunan parte hartu eta García-Lorcaren La Barracakoekin Espainiako bideetan zehar ibili. Altxamenduak hankaz gora jarri zitzaizkion plan guztiak, eta zazpi urte pasatu zituen preso, gazteegia izateagatik heriotza zigoretik libratuta. Hala ere, gerra ondoren filosofia eta pedagogiako ikasketak burutu eta urteak eman ditu irakasle gisa Bartzelonan ezezik, Ameriketan eta Afrikan. Munduan ibilita-



ALBERTO ELOSEGI

ko gizona, zentzurik beteean.

Sánchez-Ostizek orpoz-orpo jarraitzen ditu Pío Barojaren pausoak 1936tik 1940ra, ahalik eta zehaztasun handienarekin, pasarte ilunak argitu nahian, bertsio ezberdinak kontrastatuz, eta beti ere, Barojak gerraren aurrean erakutsi zuen jarrera marrazteko ahaleginean. Sarritan keinu konplizez irakurritako Baroja hori, pertsonaia insolidario eta miserable samarra gertatzen da ibilbide horretan, *antipatiko*a, Sánchez-Ostizek momenturen batean dioen bezala. Denen eta guztiaren gainetik balego bezala, eta aldi berean, norabait labain egitekotan, beti atzerakoikeriaren zentzurantz.

Gerrak eragindako atzerakada gardenki nabaritzen da zenbait idazle eta artistaren obretan. Orainsu arte Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbaran egon den Isidoro Guinearen erakusketan garbia zen marra hori. *Gudariaren agurra* hunkigarri hura pintatutako artista berak, gerra ondoren pergamino zaharkituak diseinatzeko zituen erregimenari leial ziztaizkiontzat. 1930eko hamarkadan gaurko begiekin ere moderno gertatzen diren dekorazio proiektuak egiten zituenak, atzerantzko bilakaera izan zuen lantzen zituen arlo artistiko guztietan.

Lehenengo etena izan zen, batzuentzat betirakoa, bueltarik gabekoa. Gero, bizitza berriro eraiki beharra, kanpoko nahiz bertako desherrian. Kanpora joan zirenek, zailtasunak zailtasun, askatasun gehiago aurkituko zuten. Bertan geratu zirenek, atzera egin behar biziari ezezik, bizimoduari eusteko. Eta horrela, norbanakoen obren batuketa eginda, neurtu daiteke nolabait galera. Atzerakarga, hurrengo belaunaldientzat.

Zazpi hamarkadaren ondoren, eskulturaz eta oroigarriari gara markatzen bizia galdu zutenen geografia. Liburu, dokumental eta erreportajeetan jasotzen dira oraindik geratzen diren lekukotzak, tarteka umore eta guzti, Carratalák egiten duen bezala. Zailagoa da inbentariatzen zer-nolako ondare kultural eta sozial abortatu eta birrindu zen Altxamenduaren turutak joz geroztik. Barrundatzen dena kontutan izatearekin konformatu beharko dugu. ■

◀

Zazpi hamarkadaren ondoren,
eskulturaz eta oroigarriari gara
markatzen bizia galdu zutenen geografia.
Liburu, dokumental eta erreportajeetan
jasotzen dira oraindik geratzen diren
lekukotzak, tarteka umore eta guzti,
Carratalák egiten duen bezala

▶

